

MENDITXIKI

LEGARMENDI MENDIGUNEAN BARRENA

Etzandarri euskaraz mendi taldea Lemoizko gaztetxoen artean euskararen erabilera bultzatzeko asmo z sortu zen 2015ean.

Hilera, mendi irteera bat egiten dugu eta edonork etor daitelke, baldintza balar bat betez gero: euskaraz jardutea.

«Inoiz mendien ahotsa entzun duenak ezingo du inoiz ahaztu»
Tibetar esaera zaharra

Euskaraz mendiak euskaraz mintzatzen dira eta, zer esanik ez, Legarmendi/Aramotz mendigunean. Gaur, mendigune horren gainur-lerro ezezagun bat osatzen sailatuko gara ibilbide zirkular bat egin ez. Hain zuzen, Pagasarri (838 m), Askorri (812 m), Pagofin (814 m), Aibebel-

larri (824 m), Erdiko Mendia (842 m) eta Atzoker (858 m) gainurrak igo nahi ditugu.

Trailaren 17an gaude eta surreko egunetan eguraldi nahastia izan dugu. La egunero ekaitzak egon dira. Gaurko, ordea, ez da halako nik espero. Goizeko bederatzi eta erdiak dira eta prest gaude. Jane, Elene, Amaiur

eta Olatz dagoeneko beteranoak dira, Jon eta Bai, gaurko gazteenak, ez hainbeste, baina horiek ere badute eskamendua. Batu garen gurasoak ere gogotsu gatoz. Benaz, kobietan banatu eta Durangoko Landade-derra aterdean lekura abiatu gara, ibilbidea han hasi eta bukatuko baitugu.

Pagofinako tontorra an

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Bergarako Pol-poli Mendi Taldearen hezla, gaur egun Bilbao Alpino Clubeko kidea da. 2014tik 2015ra Mendibaldi taldeko bultzatzaileko batzuan zen. 2015ean Lemoizko Ezkandari Euskar Mendi Taldeko sortzaileetako batzuan zen eta gaur egun taldearen sustatzaileetako bat da.

Ia su Alberdi Balzanegi





Galur-leroan

Hamaikak laurden gubi dira eta eguraldi ona egiten du. Landaederra atzean utzi eta marmol-harrobiar doan pista hartu dugu. Pistantik nagiak kendu eta konturatu orduko seinale-zutoin batera heldu gara. Hemen, pista laga eta Mugarrekolandrantz abiatu gara bidezidor bat hartuta. Pendiza gogorra igo ostean Katazka haitzartera heldu gara. Hura pasa eta segidan eskuinera egin dugu zelaietako gora. Mugarria ikusgarria agertu zaigu orduan. Aldapa gogorra da, baina marba moteldu eta sigi-saga eginez Pagasarri azpiko aterpetxera heldu gara. Ordubete igaro da.

Geldiune baten ostein, Legamendi mendiguneari fama ematen dien karstetik harrena, lehen gailurraren bila abiatu gara: Pagasamri (838 m). Garaiera ertaineko sistema karstiko zoragarririk batean sartu gara. Landaretsa ugaria da eta pago batzuk ikusgarriak dira. Gaur, dolina, leize, araiil, lapiez, troka, haitzulo eta abarizango ditugu bidelagunak. Oso malikantsua da lurra. Tentu handiz heldu gara Pagasamira. Zulo eta amailaz beteriko pago pean dagoen tontorra izan arren, karst eremuko bista onak dauzka.

Uneaz gozatu eta gero, metro batzuk jaitsi, tontorra inguratutu eta mendebaldeko magaletik PR-B1 83 Urkiola-Belatzikieta ibilbidera jaitsi gara. PRak karstetik harrena garamatza eta han-hemenka agertzen diren pinu zahar batzuk paisaiari halako

kutsu alpinoa ematen diote. Kilometro bat eginda, Askorriko oinarriira heldu gara. Han PRa utzi eta Askorriko tontorrari ekin diogu. Ordu batean gailurrean gaude: zorragariak dira bistak. Gaztetxoak jada gose dira, baina aurrera jarraitu dugu.

PR-B1 83ra itzuli eta berehalako seinale-zutoin batera heldu gara. PR-B1 82a Artaunerantz hartu dugu, eta ehun bat metro egin ostein, PRa laga eta ezkerreko errepidea egin dugu, Pagofin-Atzoker gailur-leroaren bila doan komidore belartsu batek. Azkenik, korridorea kanal harritsua bihurturik, eskuzez lagunduta gora egin eta gailur-lerrora heldugara. Pagofin (814 m) eskuinera daukagu eta berehalako bertan gaude. Kontuz ibili behar da, arraflaz beteriko lapiaz eremuak delako, baina ez dauka zailtasunik.

Trumoi batzuk entzuten hasi garenez, denbora galdu barik, Pagofinek Aixebelarriantz abiatu gara gailur-lerroraz gozatu z. Ahuntz talde batekin oso une diber-tigariak izan eta gero, Aixebelarri azpiko zelai batera heldu gara. Ordu biak dira eta dagoeneko zeruan hodei mehatzagarririk batzuk agertu dira. Bertan bazkaldu dugu. Trumoiak gerturatzentz ari dira eta zerua hodei beltzez estali da, beraz, amen batean jaso eta martxan gara berriz. Aixebelarri (824 m) bertan da eta postontziraino hurbiltzen gara. Ordu bi eta erdiak dira eta euri tanta batzuk jausten hasi dira.



Egoera aztertuta, Erdiko Mendira eta Atzokerrera ez segitzea erabaki dugu eta Artaungan eta Pagofin-Atzoker gailur-lerroren artean irekitzen den harantxo esekira jaitsi gara. Han, Amudiara doan bidea hartu dugu, gailur-lerotik baino askoz azkarrago joanda. Amudiatik Mugarrekolandara ziztu bizian joan gara eta justu Oinutunira heldu baino lehenago, jada aterpetxerako bidean, lehertu egin du ekaitzak. Korrika batean aterpetxera heldu gara, onik eta siku. Hirunak eta laurden dira. Eskapada ederra egin dugul Sekulakoa bota du.

Arratsaldeko laurak dira, handiena pasatudela ematen du eta Landaederra antz abiatu gara. Oraintidak ez da guztiz baretu baina azkar atertu du. Katazkatik jaitsi beharrean, marmol-harrobiar doan bidez jaitsi gara pistara. Bostak dira, Landaederran gaude, eguzkia berriz nagusi, abentura ondo amaitu da eta gaztetxoak pozik daude. Zer gehiago eska daiteke?